

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Alegia

Aurkibidea

Udalerria: Alegia

Sarrera



Alegia Gipuzkoako Tolosaldea eskualdean, Oria ibaiaren ertzean dago. Udalerriaren beheko aldean hirigunea eta industrigunea kokatzen dira, Oria eta Amezketa ibaien ibar estuen artean. Abaltzisketa, Amezketa, Ikaztegieta, Orendain eta eskualdeko buru den Tolosarekin egiten du muga. Bere biztanleek hasiera batean nekazariak eta abeltzainak ziren, baina pixkanaka lanbide tradizional hau utzi eta fabriketan sartzen hasi ziren, eta aldaketa honek baserri-kopurua erabat murriztea ekarri du. Gaur egun industri produkzioa anitza da eta enpresa txiki eta ertainez osatuta dago, gehienak metal-sektoreari loturik. Alegiarrei "Txintxarri" esaten zaie, aspaldi zintzarriak egiten zituztelako. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAKo (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 1.778
- **Euskaldunak:** %85,44

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **8**
- Zintak: **8**
- Pasarteak: **185**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **16**
- Bideoak: **169**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Juan Joxe Agirre Begiristain (1930)



Alegiako San Juan kaleko etxe batean jaioa, hamaika senidetan bigarrena. Aita Idiazabalgoa zuen, eta ama Ataunen jaioa, bederatzi urterekin Altzo azpira bizitzera joan bazen ere. Alegian pasatu zituen bizitzako lehen hamahiru urteak, jolasean eta eskolan. Azken bi urteetan, "partikular" ibili zen, amak hala nahita. Hamahiru urterekin, ordea, fraide edo apaiz izan nahi zuela erabaki zuen, eta Lazkaoko fraide-etxera joan zen, ikastera, Alegiako hiru lagunekin batera. Ikasketak Belloc-en bukatu zituen, azken urtea bertan egin baitzuen, frantses hutsean. Ondoren, beneditarrek batxilergoa irakasten zuten eskolan jardun zuen lanean, irakasle lehenik, eta zuzendari ondoren. Halako batean, ordea, beneditarrek eskolaren ardura izateari utzi zioten, eta Juan Joxe zereginik gabe gelditu zen. Aldi berean, fraide-etxeko liburutegiaren ardura norbaitek hartu beharra suertatu zen, eta Juan Joxek bere burua proposatu zuen horretarako, baldintza batekin: kanpora joan nahi zuen bibliotekonomia ikastera. Hala joan zen Montserrat-eko monasteriora. Han ikusi zuen liburutegi eta artxibo batek izan zezakeen garrantzia, herri baten historia gorde eta gerora berreraikitzeko. Horregatik itzuli zen Lazkaora indarrez gainezka, Euskal Herriko liburutegi eta artxiborik handiena egiteko asmotan. Baita lortu ere. Bere ardurapean osatutako artxiboa Euskal Herriko preziatuenetakoa da, preziatuena ez bada.

Pakita Artola Egiburu (1923)



Aita Amezketako Ugarte auzokoa zuen, eta ama Bidaniakoa. Bera, ordea, beti bizi izan da Alegian. Bere jaiotetxea San Juan kalean zegoen, zaharregia izatea egotzita bota bazuten ere. Alegian mugimendu politiko nabarmena izan zen gerra aurretik, eta gogoan du frontoian entzundako mitina: umea zen orduan, baina harrigarriak egin zitzaizkion Jose Antonio Agirre edo Telesforo Monzon bezalakoak hitzak. Aita nazionalista zuen, eta Alegian nazionalistek zigor gogorak jasan bazituzten ere, aita libratu egin zen. Ez, ordea, familiako beste kide batzuk. Garai gogorak izan ziren haiek Pakitarentzat ere. Gerra garaian Albizturren pasa zituen hilabete batzuk, neskame gisa, baina laster itzuli zen etxera. Alegian bertan ezkondu zen, eta han bizi izan da azken urteetan ere.

Luisa Josefa Bordazar



Maria Dolores Etxeberria Salbarredi (1948)

Luis Haranburu Altuna (1947)



Aita Altzokoa eta ama amezketarra zituen. Luis, bera, Alegian jaio zen, ordea, Amezketako bideko etxe batean. Lau senidetan hirugarrena, 1959an Saturrarango seminarioan sartu zen eta ondoren Donostiako seminarioan segituko zuen ikasketekin. 1968an, ordea, Parisa joan zen Filosofia ikastera. Han hiru urte egin eta herrira itzuli zen. Behin Euskal Herrian, Lur taldean hasi zen lanean, idazten eta edizio lanetan batez ere. *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* aldizkarietan kolaboratu zuen garai haietan. Gerora idazteari sekula utzi ez badio ere, edizio lanetan aritu da, bere kontura.

Idazle gisa sari ugari jasotakoa da (Pio Baroja edo Toribio Alzaga sariak, besteak beste), eta bere txikitako oroitzapenetan oinarrituz idatzi du *Ardo Zopak* (2009) liburua.

Santos Irazustabarrena Ermina (1928-2018)



Alegiako "Ezei" kale-etxean jaioa. Txikitatik gustatu izan zaio politika. Errepublika garaian Espainiako ministro guztien izenak buruz zekizkien. Eskolan abila, seminariorantz ere bideratu nahi izan zuten, karrera bat egitera ere bai, baina gerra zela eta ez zela, herriko maisua aldatu zuten eta ez zuen bide hori hartu. Paper lantegian hasi zen lanean Santos, Tolosako Arzabalzan. Sagardotegia ere plantan jarri zuen, aitonari sagardoa nola egin ikasita, eta andreak egindako mondejuen famak lagunduta. Herriko mugimenduan beti hartu izan du parte, herri elkarte bat baino gehiagoko lehendakari izan da, eta da, oraindik ere, eta Larraitzeko kooperatibako sortzaile ere izan da. Zortzi seme-alabaren aita.

Lucas Lasa Burumendi (1932)



Ama Aldabakoa zuen, eta aita Itsasondoko Urki bailarakoa. Gaur egun Alegian Tontokale deitzen dioteneko etxe batean jaio zen. Aitak arotz lanak egiten zituen Alegian bertan erositako tailer batean, eta hamaika urte bete zituenerako zerran eta basoan lanean hasi zen Lucas. Enkofradore lanetan ere aritu izan da, baina arotz ofizioa ikasi eta lanbide horretan jardun du erretiroa hartu arte. Pilotari afizionatu gisa aritua eta herriko festen antolakuntzan urte askoan parte hartutakoa da.

Koro Otaño Tovar (1933)



Alegiako kale etxe batean jaio zen. Gurasoak Alegian jaioak zituen, amaren aldeko aitona-amonak, kanpotik lanera etorriak. Lau anai-arrebetan zaharrena. Haurtzaro gogorra izan zuen, aita-amak etxetik kanpo lan egiten zuten, berari egokitu baitzitzaion senide gazteagoez arduratzea. 14 urte bete bezain pronto, Alegiako papertegian hasi zen lanean, amaren lantokian; aitek ere bertan egin zuen lan, guda zibilean borrokatzeagatik bota eta Legorretako papertegira alde egin behar izan zuen arte.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Eskolatik atera eta instrukzioak ikastera

- **Hizlaria(k):** Agirre Begiristain, Juan Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ALE-003/009
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:17:25. **Bukatu:** 00:19:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Mutikotan, eskolatik atera eta erreketek batekin instrukzioak egiten joaten ziren. Instrukzioak erdaraz izaten ziren, eta, Juan Joxek ez zekienez, eskuina eta ezkerre ("izquierda-derecha") ezin bereizita ibiltzen zen.

Transkripzioa

- Eta, beste gauza bat eskolai buruz galdetu nahi nizuna, klaro, zuek, etxen, ama Ataungoa, beno Ataun... Altzokoa izanda...
- Bai, Alegria. Bai, 9 urtekin Alegrin bizi zan. Alegri, Altzon, bai.
- Ta aitta Idiazabalgoa, euskaraz hitz eingo zenuen.
- Bai, erabat. Erdera esaten dizut ba! Oroitzen naiz, beno, hau anekdota bezela, parre egitekoa da, baiño hala gertatu zan. Gerra ondoren, gerra bukatu ta 39n, mutil koxkorrak, gazte-gaztek giñan, zeara juten giñan, eskolara, eta, zeak, uste dut arratsaldean, ordu bitan uste det hasten giñala, bazkaldu ta gero, ordu bitatik lauetaa. Eta laueta korrika atera ta obligatuta joaten giñen, han kale eskin baten jarri eta instrukzioa egitera. Instrukzioan baziran karlista izandako bat, ez dakit ze puesto zun, eta danak harek erakutsi ein behar ziola eta guk berez jolas eitea, gureztat jolas eitea zan. Eta han ilaran jarri, jarri, bata bestearen ondoren, eta eskuak gora, ezkerrea... ezkerrea bueltatu behar zala, baiña dana erderaz. Debekatu eiten zigun zeak euskeraz egitea, ta nik ez nekin "derecha" zer zan, "izquierda" zer zan, eta hola iten gendun. Ta zeak eskubira bidaltzen [zun]: "¡¡Brazo, a la derecha!!" Ez dakit ba, hola altxatzeko zan eta nik jarrita eta besteei begira, besteek altxatzen zuten, nik'e bai. Hori egia da. Eta geo, "izquierda" esaten zuenean igoal eskubia altxatzen nuen, ez

bainekin ezkerre zer zan, "izquierda". Eta geo burua mugitzeko ta instrukzio bezala egiten genitun, eta hor pentsa zazu ze erdera jakingo nun; ez nekin, ez nekin. Besteei begiratu ta harek ongi eiten baldin bazun, hura, eta gero errita.

- Ta instrukzio hoik ze, uniforme ta guzti eiten zenituen?
- Ez, ez, ez, ez, bestela, bestela.
- Reketen bat o izango zan...
- Reketea, reketea zan, bai, bai, bai. Rekete ibilitakoa.
- Ta, ze iten zenuen, mutilak bakarrik o neskak ´e ibiltzen zian?
- Ez, neskek ez, mutilak bakarrik. Orduan, bueno, emakumezkoik ez.

1.2. Eskolan, erdaraz

- **Hizlaria(k)**: Agirre Begiristain, Juan Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ALE-003/010
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:19:29. **Bukatu**: 00:21:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Eskolak erdaraz izaten ziren. Juan Joxek ez omen zekien erdaraz hitzik egiten, baina ulertu egiten zuen. Eskolan erdaraz egin arren, kalean, lagunartean... euskaraz hitz egiten zuten.

Transkripzioa

- Ordun, zuek eskolan nahiz ta, bueno, hasiera... 6 urtetatik, erderaz izango zan.

- Bai, bai, bai, bai. Bai, nik hasieran ez nekin, ordea. Geo pixkanaka ulertzen hasi nintzen baiñan nik maixuri inoiz hitz bat ez nion erderaz esan, ez nekielako. Geo, ulertu egiten nuen, ulertu bai. Baiño geo iñoiz ere hitz erdi bat ere ez lagunei erderaz, ezta iñola ere ez, iñola ere.

- Zuek, ordun, euskaraz, nahiz ta erderaz ein, nahiz ta erderaz ein eskolan, kalea ateatakon zuen lagunai euskaraz...

- Dan-dana, bai, bai, dan-dan-dan-dana. Den-dena euskeraz. Baita honera etorri, hamahiru urtekin etorri, eta egia esateko batzuketan ohitu nintzen erderaz. Garai hartan erderaz hitz egin zan Beasaingo, edo Ordiziakoa edo holakon bat zalako eta euskaraz ez zekitelako, nere moduan, erdera, baiña beste batzuketan gaur arte, nik dauzketen edade [honarte], ordutik ´e iñoz hitz bat ez diot erderaz egin, ezin detelako. Adibidez, ni anaie bate nola egingo diot erderaz? Neekin herriko bat sartu zanai, euskaraz, o erderaz, nola eingo diot? Eziñezkoa da. Izango zan anti-natura izango litzeke, ta hala ´re ez, ezin, ezin.

- Ta Alegin, ordun, izango zian kanpotik etorritakok baita ere, umek, ezta? Bueno...

- Ume gutxi, e! Ordun gutxi. Garai hartan oindik ´e inmigratioik eta holakoik ez zan, ez zan. Familin bat edo hola izango zan kanpotik etorrita, lanea hola, ingurun lan eiteko. Baiño hoiek...

- [...] familiya ta...

- Bai, nik ez, nik ez, ez, ez. Holakoik ez. Bat Pérez izeneko familia bat zeon baiño erabat gurekin ibiltzen zan ta harek gukin euskeraz. Bere gurasok ez zekiten, baiña gukin dana euskeraz egiten zuen.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Alegiako eskolan (ALE-001/002)

Aitak paper-lantegian eta baratzean egiten zuen lan. Maisu batekin 80 lagun ibili ziren. Lau urte zituela hasi zen, eta 14 urte arte egon zen eskolan. Maisua Andr s Vazquez zuten, eta ez zekien euskaraz. Maisuak makila handi batekin jotzen zituela dio. Neskak eta mutilak aparte zeuden eskolan. Aritmetika, geometria, geografia eta horrelakoak ikasi zituzten eskolan. Maisuak ume txikiei erakusten eta laguntzen jartzen zuen eskolan.

2. Gerra hasieran txirrindularitza-itzulia bertan behera (ALE-001/003)

Zortzi urte zituela, gerra hasi zen. Goizean jaiki zirenean txirrindularitza-itzulia zegoen Alegian; eta, bando baten bitartez, bertan behera gelditu zela jakinarazi zieten; mugimendua hasi omen zen. Herriko zubiari hiru zulo egin zizkioten kotxerik ez pasatzeko, bere ustez, nafarrak ez sartzeko. Gerra hasi aurretik, horrelakorik ez zuten espero.

3. Gerra hasieran, Alegiatik ihesi (ALE-001/004)

Gerra hasi zenean, aita Azpeitira joan zen ihesi, errepublikazalea zelako. Amonarekin Orendainera joan ziren; eta bere amak, berriz, bi fronte pasa zituen. Aitarengana iritsi zenean, hura bezalakoei zer egiten ari ziren jakinarazi zion eta berarekin bueltan ekarri zuen. Alegiara bueltatzeari esker, ez zuen lana galdu. Garaiz itzuli ez zirenek, berriz, paper-fabrikako lana galdu omen zuten.

4. Gerra hasierako egoera eta bandoak (ALE-001/005)

Osaba nazionalista bat zuen; eta, Bilbon harrapatu ondoren, kartzelan bi urte baino gehiago pasa zituen. Alegian, gehienak errepublikazaleak zirela dio. Ihesi egindakoak bueltatu zirenerako, erreketek sartuta zeuden Alegian. Errepublikak pattal jokatu zuela uste du, baserritako mutilak erreketeen esku utzi zituztelako. Aitona karlista zuen. Orendainen amonaren anaiaren etxean egon ziren, baina laster bueltatu ziren Alegiara. Maisua egon zen idazkari hasieran, beste inor ez zegoelako.

5. Gerraren lehenengo asteak (ALE-001/006)

Udalean, gauzak ez ziren gehiegi aldatu Errepublika bukatu eta gerra hasi zenean. 'Bakaileo' deituriko bat jarri zen udaletxeko buru. Isilik egotea baino, ez zegoen beste erremediorik. Aita erreketek janztera behartu zuten eta isuna ordaindu behar izan zuen gorrietakoa izateagatik. Amak aita udaletxean defendatu zuen.

6. Errepublika garaia (ALE-001/007)

Carlu Carlista, Centro Republicano eta batzokia zeuden Alegian. Batzokian teatroak eta egiten zituzten gerra aurretik. Gerra hasi zenean, batzokia eta Centro Republicano desagertu egin ziren. Banderaren koloreen gerrikoa erabiltzen zuten eta berari oparitutako gerriko nazionalista bota egin omen zuen, errepublikazalea zelako. Nazionalistek eta karlistek ere bere koloreak eramaten zituzten. Centro Republicanoan ministroen izenak esaten

zituen sei urte zituela eta denak "¡viva!" erantzuten omen zuten. Errepublikako lehen presidentea Alcalá Zamora izan zela gogoratzen du eta haren ondoren Azaña. Largo Caballero sozialista, Indalecio Prieto eta beste zenbaiten izenak gogoan ditu.

7. Francoren diktaduran errepublikazaleak isilik (ALE-001/008)

Gerra hasi ondoren errepublikazaleek ezin zuten hitzik esan. Gerra bukatu zen Madrilera iritsi zirenean eta gero Franco jarri zen eta diktadura ezarri zuen, hark esaten zuena egin behar zen.

8. Artoa eta babarrunei esker ez zuten goserik pasa (ALE-001/009)

Herri handietan Alegian baino miseria gehiago zegoela dio. Herri txikietan denek baratzea zutenez, taloa eta babarruna behintzat urte osorako zuten; beraz, ez zuten goserik pasa. Artoa osaba baten errotara eramaten zuten.

9. Alegiako baserrien izenak (ALE-001/011)

Alegian baserri asko zeuden, kalean bost baserri bazirela gogoratzen du: Langabenea, Arterraka, Langatu, Muxukenea eta Kakutsenea. Gaur egun bi baserri bakarrik daude Alegiako kaleetan. Bere baserriak Ezei zuen izena. Baserrien izen asko gogoan ditu: Ezeierdi, Ezeigoikoa, Larreta, 'Arterrakabeistin', 'Beistitxe', Basokaundi, Basokatxiki, 'Gotzen', 'Langaurren'... Baserrikoak atzeratuagoak zirela uste du, eskolara gutxi joaten zirelako.

10. Soldadu Afrikan (ALE-001/012)

Komunio handia egin zuen hamabi urterekin eta hor bukatu zen bere eskola baino gero soldadu zela ikasten jarraitu zuen. Soldadutzan ofizinista eta furriel izan zen, 50-51 urteetan, Saguenen, Afrikan. Ondo ibili zen soldadutzan, kapitainak maitea zuelako. Brigadak ekarritako kartak berak partitzen zituela gogoratzen du. Soldadutzan elkarrekin izandakoak gogoratzen ditu eta euskaldunak estimatuak zituztela pentsatzen du. Soldadutzako kontakizunak azaltzen ditu. Kapitainak bidali zion karta bat oraindik gordetzen du, karta hari esker hiru hilabete gutxiago egin zituelako soldadu bezala.

11. Tolosako Arzabalza papeleran lanean (ALE-001/014)

Tolosako Arzabalza paper-lantegian irabazitakoa zeukan gordeta. Tolosako Arzabalza paper-lantegiko arduraduna izan zen berrogei urtez. Papelerako kontuak azaltzen ditu. Peoi bezala hasi zen paper-lantegian; enkargatu izatera nola heldu zen kontatzen du.

12. Papelerako lana (ALE-001/015)

Papelereako kalandra eta bobina zertarako erabiltzen zuten. Pasta prestatuta etortzen zitzaien: "fibra corta" hemen egiten zen eta "fibra larga", berriz, Suediatik eta behin Errusiatik, baina hura ahulagoa zela dio. Pasta egiteko Santanderretik ekarritako eukaliptoa erabiltzen zuten. Egindako papera toki askotara saltzen zuten, Espainiara barne. Paperaren pasta gerra ondoren hasi ziren egiten hemen, lehenago dena inportatu egiten zen. Gerra ondoren pinua eta eukalipito asko jarri zutelako egiten zuten pasta bertan.

13. Zahagi-ardoa eta festak (ALE-001/017)

Urtean hiru zahagi-ardo izaten ziren, 80-90 litroko zahagitako ardoa doan banatzen zuten. Bakoitzak bere ogia etxetik ekartzen zuen eta baita kazuelan prestatutako txerri-hankak ere. Elkarrizketa garaian, oraindik ere ateratzen omen dute zahagi-ardoa. Zahagi-ardoa Karnabaletan, Pazkotan, Corpus Egunean eta San Juanetan ateratzen zen eta arkupea beteta izaten zen, gehienak gizonezkoak ziren. San Juan herriko patroia da. Berak ez zuen ezagutu, baina bai omen zen ohitura San Juanen eta Karmen egunean batzuk besteak gonbidatzea. San Juan gauean sua egiteko ohitura zuten.

14. Tolosan zinea eta dantza, igande arratsaldeetan (ALE-001/019)

Jai goizetan mezara joaten ziren lehen eta baita elkarrizketa egin zitzaionean ere. Arratsaldetan Tolosara trenez joaten ziren. Tolosan zinemara joaten ziren eta ondoren hiru pieza dantzatzen zituzten Beotibar frontoiko bailean. "Lo que el viento se llev ", "Hagan juego", eta horrelako pelikulak ikusten zituzten Gorriti, Iparragirre eta Acci n Cat licako zinema-aretoan. Zineman ez zuten ezer jaten.

15. Alegiako tabernak (ALE-001/021)

Bere garaian Alegian orain baino taberna gehiago ziren, baina inor ez zen tabernatik bakarrik bizi, denak lanera joaten ziren. Tabernen izenak aipatzen ditu. Sagardotegiak ere baziren eta gogoratzen dituenak aipatzen ditu.

16. Sagardoa egiteko modua (ALE-001/023)

Sagardoa egiteko prozesua azaltzen du, aurrena txikitu makinekin, gero prentsa. Sagasti ederra daukala kontatzen du. Txikitu ondoren prentsa bota eta sagarra estutu egin behar dela dio eta ondoren zukua barrika bota eta irak egiten jarri. Aitonak erakutsi zion sagardoa egiten eta bera omen zen Alegiako sagardorik hoberena egiten zuena. Klementinan sagardotegian ikasi zuen aitonak sagardoa egiten. Inguruko baserrietan egiten zuten sagardoa txarra zela iruditzen zaio. Txolarrea baserri ezberdinetakoek txandaka erabiltzen zutela dio.

17. Alegiako San Juan kalean jaio eta bizi (ALE-002/001)

Pakita Artola Egibururen aita Amezketako Huarte auzokoa zen, ama berriz, Bidanikoa. 1923an jaio zen Alegian, urtarrilaren 29an. Beti Alegian bizi izan da. San Juan kaleko etxe batean jaio zen. Etxe hura bota egin zuten zaharra zelako. Ondoren etxe berriak eraiki dituzte.

18. Hiru senidetan zaharrena (ALE-002/002)

Gazte denbora guztia San Juan kalean pasa du. Hiru senide ziren eta Pakita zaharrena zen. Ahizpa zaharrenak lana gehiago egin behar izaten zuen.

19. Alegiako eskolan asko ikasi zuen (ALE-002/003)

Gerra hasi zenean, 13 urte zituen. Orduan utzi zuen herriko eskola. Maistra ona zuten, Irungoa, baina dena erdaraz erakusten zien. Denbora gutxian asko ikasi zuten. Irakurtzea eta geografia zituen gustuko. Liburu bakarra zuten, gai guztiak biltzen zituena. Eskola ondoren, dotrina ikasten zuten eta asko kostata ikasi ere.

20. Dotrina asko ikasi zuten katekista ona zutelako (ALE-002/004)

Komunio txikia sei urte zituztenean egiten zuten eta ondoren dotrina ikasten zuten 12 urte arte. Katekista batek erakusten zien. Gauzak buruz ikasteaz gain dena azaltzen zien. Oso gustura joaten ziren.

21. Eskolan abesten zituzten kantak gerra ondoren aldatu egin ziren (ALE-002/005)

Goizean eskolara joaten ziren eta ondoren dotrina ikastera. Eskolatik ateratzerakoan zein abesti kantatzen zuten gogoan du. Gerra ondoren abestiak aldatu egin ziren.

22. Bi maistra, bat gerra aurretik, bestea gerra ondoren (ALE-002/006)

Gerra ondoren, Irungo maistra bat etorri zen eta asko irakatsi zien. Gerra aurretik beste maistra bat izan zuten: bertakoa zen; baina, hala ere, gaztelaniaz erakusten zien.

23. Eskolan erdaraz: bertakoek arazoak eta kanpotarrak berriz ez (ALE-002/007)

Erdaraz oso gutxi zekiten eta eskolan buruketak ulertzea asko kostatzen zitzairen. Erdaldun batzuk bazeuden eta haiek hobeto moldatzen ziren. Alegian bizi ziren kanpotarrak gogoan ditu. Kanpotar gutxi ziren. Beranduago gehiago etorri ziren.

24. Karlisten mitinean izandako istiluak (ALE-002/009)

Gerra aurretik Alegian batzokia zegoen. Pakitaren aita han ibiltzen zen, mitinetan parte hartzen. Errepublika garaia zen eta karlista asko zeuden eta giroa arriskutsua zen. Inguruko herrietako mitinetara isilpean joaten ziren. Karlistek txapela zuria eramaten zuten garai hartan. Behin mitina antolatuta zuten Alegian, pilota plazan. Errepublikanoekin borrokan ibili ziren egun hartan. Batzuk atxilotuta eraman zituzten.

25. Abertzaleen mitina Alegiako plazan (ALE-002/010)

Karlisten mitina izan eta aste bete beranduago nazionalistek mitina ospatu zuten Alegian. Irujo, Monzon eta Joxe Antonio Agirrek parte hartu zuten. Pakita eta bere laguna aurre aurrean egon ziren mitin hartan. Mitinaren ondoren batzokira joan ziren zerbait jatera.

26. Senarrak Teruelgo frontea ez zuen sekula ahaztu (ALE-002/012)

Pakitaren senarrak gerra garaian pasatakoak gogora ekartzen ditu. Teruelgo frontean bizitakoak bereziki markatu omen zuen, eta beti gogoan izaten zuela dio.

27. Herritarren arteko laguntza gerra garaian eta gerra ondorengo arazoak (ALE-002/013)

Gerra garaian gorriekin borrokatu zutenek ez zuten lanik aurkitzen bueltatzen zirenean. Alegiako medikua karlista zen eta beldurrez zegoen Tolosatik gorriak etorri eta hil egingo ote zuten; errepublikano batek lagundu zion. Hala ere, gero errepublikanoek gaizki pasa zuten karlistak Tolosara sartu ziren garaian.

28. Tolosako kartzelan gorriak zigortu zituzten eta ondoren ez zien inon lanik ematen (ALE-002/014)

Tolosako kartzelan, gorriei izugarrizko zigorrak jartzen zizkietela esaten zuten. Alegiako zenbait gizon bertan zigortu zituzten. Bertan lanik ematen ez ziela eta, batzuek alde egin zuten. Alegiako zenbaiten kasuak aipatzen ditu. Gerra bukatu zenean, erreketek etorri ziren, eta denei lana eman zien, bertakoei eman beharrean.

29. Errepublikanoen bandera eta ikurrinak erre zituzten gerra hasieran (ALE-002/015)

Gerra hasi zenean, askok herritik alde egin zuten. Sartu zirenek bandera errepublikanoak eta ikurrinak erre zituzten.

30. Botoa ematerakoan baldintzaturik (ALE-002/019)

Pakitan amonak botoa karlistei ematen zien bere etxearen jabe zirelako. Botoa emateagatik ordaindu egiten omen zuten. Behin Pakitaren osabak amonari botoa besteei emateko eskatu zion eta bozkatzera lagundu zuen. Osaba bertan utzi zuten gau osoa eta jatekorik ere ez zioten eman. Gaur pasan ondoren kartzelan sartu zuten.

31. Gerra garaian, etxekoek asko sufritu zuten (ALE-002/020)

Pakitaren aita Bilbon zegoela, amari ez zioten etxean sartzen utzi Frantziatik itzuli zenean. Semea erreketek zeukala esan zuenean utzi zioten sartzen. Aita itzuli zenean, Tolosako kartzelan sartu zuten. Tolosan asko fusilatu zituzten.

32. Aita kartzelan (ALE-002/021)

Urtebete pasa zuen kartzelan. Apaiza bat ere kartzelan sartu zuten. Beranduago, aita Donostiako Ondarretako kartzelan eduki zuten. Epaiketa iritsi zenean, amak kartzelako arduradunarekin hitz egin zuen.

33. Aitaren epaiketa (ALE-002/022)

Aitaren epaiketa iritsi zen; eta, azkenean, askatzea lortu zuten, lekuko askoren aitorpenak entzun ondoren.

34. Emakume eta umeak Alegiako fabrika batean zigorturik zituzten (ALE-002/023)

Aita epaitu zuten garaian Pakitak 15 edo 16 urte zituen. Beldurra pasa zuten. Emakume asko beraien umeekin fabrika eduki zituztela gogoratzen du. Zigortuta zituzten.

35. Gerra lehenengo egunak Alegian (ALE-002/025)

Gerra garaian izan ziren arpilatzeak (sakeoak) eta hilketak. Nazionalak sartu zirenean, bandoa jo zuten zera esanez, 48 ordutan itzultzen ez zirenen etxeak konfiskatu egingo zituztela. Alegian, bonbak bota zituzten gerra hasieran.

36. Lapurretak gerra garaian (ALE-002/030)

Nazionalistek pasa zuten okerren gerra ondoren. Izebak denda txiki bat zeukan; eta, ihes egin ondoren itzuli zenean, dena lapurtu ziotela ikusi zuen. Hala ere, isilik mantendu behar izan zuen. Kutxan zeukan dirua ere lapurtu omen zioten.

37. Albizturen txapel gorria jarrita instrukzioa egiten ibiltzen ziren (ALE-002/031)

Pakita Albizturen egon zen garaian, etxeko bi ahizpak ilea moztuta zeuden. Umeak instrukzioak egiten edukitzen zituzten. Pakitak ez zuen sekulan txapel gorriarik jarri. Albizturen hiru hilabete pasa zituen lehengusuen etxean.

38. Karlistadan emakumeak nola zigortzen zituzten (ALE-002/033)

Pakitaren birramona Goiatzen bizi zen. Birramonak karlistadari buruz kontatzen zuena azaltzen digu. Mendian gordeta zebiltzan gizonak emakumeak janaria eramatera joaten ziren eta horregatik Tolosan zigortuak izan ziren.

39. Altzo mendian gordeta Gerra karlista garaian (ALE-002/034)

Pakita eta bere alabak etxean entzundako karlista eta liberalen arteko liskarrak komentatzen dituzte.

40. Alegiako festetan dantzasoka eta piper opilak (ALE-002/036)

Herriko festetan dantzasoka eta sagi ardoa izaten ziren. Festak Sanjoanetan izaten ziren. Corpus Egunean prozesio dotorea egiten zuten. Emakumeek ez zuten parte hartzen. Dantzasoka aureskua izaten zen eta mutilak emakumeak ateratzen zituzten. Herriko emakumeek piper opilak saltzen zituzten eta mutilek neskei erosten zizkien.

41. Piper-opila asko saltzen ziren festetan (ALE-002/037)

Piper-opilak erroskilla antzekoak ziren. Karta-joko bat ere egiten zuten piper-opilekin lotuta. Piper-opila asko saltzen zituzten.

42. Zinta jokoa Alegiako Kale Berrian (ALE-002/038)

Festa handienak Carmenetan izaten ziren. Bizikletan zinta hartzeko jokoa ere egiten zuten Kale Berriko festetan. Joko hura nolakoa izaten zen azaltzen du.

43. Jendetza handia Alegiako festetan (ALE-002/039)

Koskor apustuak ere egiten zituzten festetan. Pilotarik gabeko pilota jokoa ere egiten zuten. Alegiako festak fama handia izaten zuten gerra ondorengo garaian. Carmen egunean inguruan ez zen beste festarik izaten eta jende asko joaten zen Alegiara. Ezkonduen eguna ere asmatu zuten.

44. Zenbait gauzetan Hirugarren Munduan bizi zirela iruditzen zaio (ALE-002/044)

Goizeko seietan meza izaten zen eta hara joaten zen Pakitaren amona. Anaia ere joaten zen, akolito bezala. Oso bizimodu gogorra zen. Hirugarren munduan

bizi zirela iruditzen zaio. Dena bekatua zen. Ezer ez zekiten, denak lotsa ematen zien.

45. Aita, kamino arduradura (ALE-003/002)

Juan Joxeren aita ezkondu aurretik CAF-en aritu zen lanean. Gero, berriz, Alegia eta Tolosa arteko kaminoaren arduraduna izan zen: aldundiko langilea zen.

46. 13 urterekin, seminarioa (ALE-003/003)

Garai hartan, 13-14 urterekin hasten ziren lanean neska-mutilak. Juan Joxe 13 urterekin seminarioa joan zen. Zer ikasketa egiten zituzten azaltzen du.

47. Eliz giroa, herri guztietan (ALE-003/004)

Juan Joxeren mutil kozkor garaian, eliz giro handia zegoen herri guztietan. Lehen, inor ez zen oporretan ateratzen herritik kanpora: gehinez, bi-hiru egunerako inguruko mendiren batera joango zen bat edo beste. Herri inguruan ibiltzen ziren, eta igandetan mezara joaten ziren. Alegian ba omen zen pertsona bat mezara joaten ez zena, "eta guri iruditzen zitzaigun oso pertsona arraroa" dio Juan Joxek.

48. Meza nagusia eta bezperak (ALE-003/005)

Igandetan, hamarretako meza nagusira joaten ziren. Bezperetan, "tranpa" egiten omen zuten nahiz eta amak hara joatera behartu. Elizako ateraino joaten ziren, arrosarioa nork errezatzen zuen ikusi eta lagunartera joaten ziren. Etxeratutakoan, amak arrosarioa nork esan zuen galdetzen omen zien.

49. Herriko eskola eta partikularra (ALE-003/006)

Herriko eskolan ibili zen sei urtetatik 11 urtera bitartean. Neskek eta mutilek aparte ikasten zuten. Eskolak gaztelaniaz izaten ziren, eta adin ezberdinetako mutilak egoten ziren gela berean. Gerra ondorenean, eskolan sartu eta aurreneko gauza besoa altxatu eta "¡Viva España!" esan eta 'Cara al Sol' abesten zuten. Ikasteko modua: buruz eta kantuen bidez. Eskolako azken bi urteetan maisu partikular batengana bidali zuten gurasoek.

50. Ikasgaiak eta ikasmateriala (ALE-003/007)

Eskola garaiko kontuak. Ikasgaiak: matematika ("regla de tres"), geografia, historia, erlijioa... Ikasgai guztiak biltzen zituen liburu bat erabiltzen zuten eskolan, entziklopedia modukoa. Ikasmateriala: pizarra, pizarrilloak, entziklopedia, liburu potoloa...

51. Herri eskola eta partikularra (ALE-003/008)

Herri eskola edo "nazionalaren" eta partikularraren arteko diferentziak. Partikularra ordainpekoa izaten zen, ikasle gutxiago izaten ziren, paperean eta arbelean egiten zuten lana, maisua gainean zegoen beti... Amak bidaltzen zuen partikularrera, herri eskolan ez zutela behar adina ikasten iritzita. Gutxiengo batek egiten zituen batxilergoko ikasketak.

52. 'Poxpolin' komiki liburua (ALE-003/012)

Juan Joxek sei urte zituela argitaratu zen Tolosan 'Poxpolin' komiki liburua. Lopez Mendizabal zen argitaratzailea. Liburuko istorioei buruzko azalpenak.

53. "Naparrak" Alegian sartu zireneko (ALE-003/013)

Gerra aurreko oroitzapenak. "Naparrak" Alegian sartu zireneko oroitzapenak. Gurasoek anaia zaharrena eta Juan Joxe amaren familiako baserrira bidali zituzten astebeterako. Tiroak eta soldaduak gogoratzen ditu. Herriko mutikoak soldaduen atzetik ibiltzen ziren.

54. Gerra denborako kantua (ALE-003/014)

Gerra denborako kontuak. Mojetan ikasten zuen lehengusu bati ikasitako kantu bat abestu. Musika notak eta agintearen aldeko letra uztartzen ditu kantuak.

55. Tolosan erositako larruzko baloia (ALE-003/016)

Umetan, Juan Joxeri ez zitzaion pilotan ibiltzea gustatzen. Boloiarekin lasterka, futboleant... ibili ohi zen. Tolosan erositako larruzko baloiarekin ibiltzen ziren jolasean. Baloia lagunartean erosten zuten. Frontoian aritzen ziren futboleant

56. Dotrina buruz ikasi behar (ALE-003/019)

13 urtera arte ibili zen eskolan. Asteant bitan, eguerdi partean, dotrina edukitzen zuten on Lukas Guridi apaizarekin. Erdaraz ikasten zuten. Dotrina buruz ikasi behar izaten zuten jaunartzea egin ahal izateko. 12 urterekin "comunión solemne" (jaunartze handia) egiten zen.

57. Umetatik koruan (ALE-003/020)

11 urte betetzerako hasi zen elizako koruan kantatzen. Akolito ere ibiltzen zen. Koruko entseguak iluntzetan izaten ziren. Latinez abestu ohi zuten.

58. Gudariei laguntzeko antzerkiak (ALE-003/021)

Gerraostean, Eguberri eta Pazko inguruan, antzerkiak egin ziren preso zeuden herriko gudarientzat dirua biltzeko. Herriko apaizak eta hainbat herritarrek antolatzen zuten antzezlanak. Antonio Maria Labaien antzerkigile tolosarrak idatziko obrak antzeztu ohi zituzten. Emanaldi horiek isilka egiten ziren. Juan Joxek koruarekin parte hartu zuen antzezpen batean. Jende asko biltzen zen emanaldiak ikustera.

59. Arantzazuko frantziskotarrak eta Lazkoako beneditarrak (ALE-003/023)

Mutikotatik eliz giroan ibili izan zen Juan Joxe. 12 urte zituela akolito lanetan ibiltzen zen elizan, beste mutiko batzuekin batera. Garai hartan, Arantzazuko frantziskotarrak herriz herri ibiltzen ziren "bokazio bila". Frantziskotar bati Arantzazura joango zela agindu zioneko pasadizoa kontatzen du. Juan Joxek osaba bat zuen Lazkoako beneditarretan, eta, fraide izan nahi zuela erabakita, 13 urterekin Lazkoako fraide-etxera joan zen, Alegiako hiru lagunekin batera.

60. Fraide izateko erabakia hartu (ALE-003/024)

Lazkoara fraide joateko erabakia hartu eta erabakiaren berri etxean eman zueneko garaiaz hitz egiten du Juan Joxek. Amak pozarren hartu zuen erabakia. Aitari ez zion esan azken unera arte, beldurrez edo. Ikasteko gogoz joan zen Lazkoara. Udan bakarrik joaten ziren herrira.

61. Fraide-etxeko bizimodua eta ikasketa (ALE-003/025)

Lazkaoko fraide-etxeko bizimodua. Ikasketa urteak: sei urte "humanidades" ikasten, urtebeteko nobiziotza, hiru urte filosofia ikasketak egiteko, beste lau urte teologia ikasketak egiteko... Eta ondoren, apaiztu. Ikasketei eta ikasgaiei buruz hitz egiten du.

62. Seminarioko aurreneko urteak (ALE-003/026)

Seminarioko aurreneko urteak. Bizi esperientzia. Ikaskideen arteko elkarbizitza nolakoa zen... Egunpasak, seminarioko lagunartea, oporretan herrira bueltatzea...

63. Seminarioko ikaskideak eta euskarazko eskolak (ALE-003/027)

Seminarioko aurreneko urteak. Seminarioan sartu zen urtean, 12 ikaskide ziren. Horietatik lau Alegiakoak ziren. Euskarazko eskolak ematen zituzten: itzulpenak egiten zituzten, Zabalaren gramatika ikasten zuten... Irisarriko Mateo Agerre zuten euskara irakaslea.

64. Baionan apaiztu (ALE-003/030)

Baionan apaiztu zen Juan Joxe. Organista behar zutela eta joan zen hara. Teologiako azken urtea han egin zuen. Berarekin batera apaiz ordenatu ziren kide batzuei buruz hitz egiten du.

65. Apaiztu aurreko azken urtea Bellocen (ALE-003/032)

Apaiz ikasketak Bellocen bukatu zituen, azken urtea bertan egin baitzuen, frantses hutsean. Bellocen organista behar zutelako joan zen hara. Bellocen egon zen denboran bakardadea sentitu zuen; hango komentuko bizitza tradizionalistagoa zegoela dio.

66. Montserratera, bibliotekonomia ikastera (ALE-003/037)

Beneditarrek eskolaren ardura izateari utzi zioten, eta Juan Joxe zereginik gabe gelditu zen. Aldi berean, fraide-etxeko liburutegiaren ardura norbaitek hartu beharra suertatu zen, eta Juan Joxek bere burua proposatu zuen horretarako, baldintza batekin: kanpora joan nahi zuen bibliotekonomia ikastera. Hala joan zen Montserrateko monasteriora.

67. Montserrattetik Lazkaora bueltatu (ALE-003/038)

Montserrateko monasterioan bibliotekonomia ikasi eta Lazkaoko fraide-etxeko liburutegiaren ardura hartu zuen Juan Joxek. Liburutegiaren hasierari, obrei... buruz hitz egiten du.

68. Liburutegi eta artxibo baten garrantziaz jabetu (ALE-003/039)

Montserrateko monasterioan egin zituen Juan Joxek bibliotekonomiako ikasketak. Han ikusi zuen liburutegi eta artxibo batek izan zezakeen garrantzia, herri baten historia gorde eta gerora berreraikitzeke. Caracasen zegoen kide beneditar baten bidez atzerrian Euskal Herriaz argitaratzen zen edozein material jasotzeko deia egin Juan Joxek. Gisa horretan, Euskal Etxeetatik material asko bildu zuen.

69. Artxiboa, etorkizunera begira sortua (ALE-003/045)

Lazkaoko fraide-etxean liburutegi eta artxiboa sortzeko hasieran izan zituen zailtasunei buruz hitz egiten du: leku falta, material bilketa... "Biharko egunera" begira ekin zion lan horri Juan Joxek.

70. Argitalpen klandestinoen, sermoien... bilketa (ALE-003/046)

Lazkaoko fraide-etxean liburutegi eta artxiboa sortzeko hasieran izan zituen zailtasunei buruz hitz egiten du. Hasiera batean liburutegia eratzeari ekin zion, eta gero etorri zen artxibategia osatzearen ideia. Argitalpen klandestinoen, sermoien... bilketarekin nola hasi zen. Bilketaren garrantziaz hitz egiten du.

71. 'Tontokale' (ALE-004/002)

Gaur egun 'Tontokale' izenez ezagutzen den kalean jaioa da Lucas. Garai batean kale hori nolakoa zen azaltzen du. Gaztea zela, kale horren asfaltatze lanetan ibilia da.

72. Larraitz auzoa (ALE-004/003)

Garai batean, Larraitz auzoa dena gari-soroak ziren. Urte batean garia eta artoa ereiten zen lur horietan. Larraitz auzoko etxeei, Fabrensa lantegiari eta Franconi kolegioari buruz hitz egiten du.

73. Mezak eta kanpaiak (ALE-004/004)

Alegian egiten ziren mezak aipatzen ditu: tokiak eta ordutegiak. Meza entzun gabe ezin izaten zuten eguneko beste eginkizunak egitera joan, derrigor konfesatu beharra, baraurik Jauna hartu beharra... Asteburuetan kanpaiak noiz jotzen ziren aipatzen du. Goizeko kanpaiak: argi-ezkilak. Eguerdiak: "aimariak".

74. Hika, zuka eta berorika (ALE-004/007)

Hamar senide ziren etxean. Horietatik bederatzik berorika egiten zien gurasoei, eta anaia batek zuka egiten zien, elbarria zen. Ba zen Alegian mediku bat ez zitzaiona gustatzen berari berorika egitea: "behorrak mendian egoten dira!" esaten zuen.

75. Apaizarekiko tratamendua (ALE-004/008)

Kalean apaizarekin gurutzatu eta burua makurtzeko keinua eginez agurtu behar izaten zen. Norbait hil eta apaiza elizakoak ematera zihoala harekin gurutzatuz gero, belauniko jarri behar izaten zen hura pasa arte. Apaizari, medikuari eta albaitariari berorika egiten zien, eta, etxean txerriren hiltzen zenean, txerriaren zati preziatuenak haientzat izaten ziren.

76. Irina (ALE-004/009)

Gosete garaian, bi okindegi ziren Alegiako erroetan. Handik gertu kanposantua zegoen. Poliziak estraperloko irina kentzen zien okinei. Irin zakuak ez kentzeko, kanposantuan gorde izan zituztela kontatzen du Lucasek. Nafarroatik ere ekartzen zen irina astoetan, San Migeldik barrena. 1941ean, eta lehenago ere, ogi zuriak duroa balio zuen. Litro olioak, berriz, 20 duro balio zuen, eta, garestia izanagatik ere, inguratze zailtasunak izaten ziren.

77. Gosea eta errazionamendua (ALE-004/010)

Errazionamenduko ogi beltza. Olio eta xaboia txekorraren gantzarekin (seboarekin) egiten zen. Dendetara eta ekonomatoetara kartilarekin joan behar izaten zen jakiak eskuratzeko.

78. Estraperloa eta ogia (ALE-004/011)

Alegian ogiaren estraperloa egiten zen. Garai hartan bi ogi klase zeuden: "papera bezalako ogi zuria" eta beltza. Aste guztirako egiten zen ogia. "Seiko ogia" esaten zitzaion hiru kiloko ogiari.

79. Kaleko bizimodua, gose denboran (ALE-004/013)

Gerra ondorengo bizimoduaz hitz egiten du. Baserrietan ez zen dirurik, baina ez zen jatekorik falta izaten: taloa, esnea, ogia, patata... edukitzen zuten beti. Kaleko jendeak, ordea, ez zuen "ez dirurik ez jatekorik". Igandetan, Lucasen aita batera edo bestera joan izan zen lanera kilo bat irin eta jan truke. Etxean 12 lagun ziren. Jatorduetan zer jan ohi zuten aipatzen du: sardina zaharrak, taloa, sagar errea, esnegaina...

80. Txerriak eta oiloak nola hazi (ALE-004/014)

Kaleko etxabe ("bajera") askotan hazten ziren txerriak. Txerriak kalean bertan hiltzen ziren. Txerriak eta oiloak nola hazten zituzten azaltzen du: elikadura, hazteko zenbat denbora behar izaten zen...

81. Etxabeetan txerriak hazten ziren (ALE-004/016)

Alegiako etxabe ("bajera") askotan hazten ziren txerriak. Herrian baziren lau ukuilu. Egunero-egunero, 12:00etan, behiak ura edatera eramaten zituzten frontoi ondoko asketara. Txerriak, berriz, goizean eta arratsaldean ateratzen zituzten kalera. Herri guztia kakaz eginda egoten zen: jendeak tximaurra egiteko bildu ohi zuen palekin. Garai hartan, kalean 1.900 lagun inguru bizi ziren: familia handiak izaten ziren.

82. Telefonoa, albaitariarenean (ALE-004/017)

Alegian telefono bakarra zegoen, albaitariarekoa. Albaitariaren anaia zen telefonista. Telefonista Felipe zuen izena eta itsua zen; gerora, Lucasen koinatu egin zen. Umetan, Lucas ibilia da telefonistak emandako telegramak etxeetara eramaten.

83. Gorputz garbiketa eta "barberiak" (ALE-004/018)

Etxean garbiontzi ("palankana") batean garbitzen ziren, "kuarto ilunean". Gainerakoan, larunbatetan ibaira joaten ziren bainatzera. Gizonak astean behin joaten ziren bizarginarengana ("barberira"). Alegian lau bizartegi ziren.

84. 'Brontze' harakina (ALE-004/019)

'Brontze' harakina oso ezaguna zen herrian. Gizon handia eta adarjotzailea zela kontatzen du Lucasek. 'Brontze'ri buruzko pare bat pasadizo kontatzen ditu.

85. 'Brontze' harakina eta haragiaren prezioa (ALE-004/021)

'Brontze' harakina oso ezaguna zen herrian. Gizon handia eta adarjotzailea zen. Umeak harategira enkarguren batekin joaten zirenean adarra jotzen zien, eta, gero, ez zien haragia kobratzen. Haragi kiloak 20 pezetan balio zuen.

86. Aurreneko jornala eta paga (ALE-004/022)

11 urterekin hasi zen lanean, baina ez zuen jornalik irabazten, jan truke izaten zen. Lehenengo jornala: astean 30 duro irabazten zituen. Festetan, egunean erreal bat ematen zien amak. Mutil kozkorretan ez ziren tabernetan ibiltzen.

87. Garai bateko Karmen jaiak (ALE-004/024)

Garai bateko Karmen jaiak nolako izaten ziren azaltzen du. Diana, sokamuturra, soinu-joleak, pilota partidak, gaueko erromeria... izaten ziren. Goizeko 01:00-01:30ak aldera aguazilak "ronda" egiten zuen tabernak ixteko.

88. Aguazilak, zigorrak eta etxeratzeak (ALE-004/025)

Festa egunetan aguazilek "ronda" egiten zuten tabernak ixteko. Norbaitek trastadaren bat edo jarrera desegokiren bat edukiz gero, aguazilek/udalak zigorra jartzen zion: kaleak garbitzera edota igande arratsaldetan udaletxeko aretoan egotera behartzen zituzten. 13-14 urterekin, festetan hamarretan (musika bukatzen zenean) joaten ziren etxera.

89. Tabernako giroa (ALE-004/026)

Herriko tabernetako giroa nolakoa zen: porroi bat ardo (litro erdi bat) hartu eta kontuak esanez karta-joan egoten zen jendea. Baso erdia errealean ezagutu du Lucasek.

90. Tolosako Bar Amaian, arrebari laguntzen (ALE-004/027)

30 urtean aritu da Lucas Tolosako Bar Amaian arrebari hango lanetan laguntzen, festetan eta igandetan. Plaza Berrian jaiero izaten zen musika. Ardoa, koinaka eta anis eran ohi zuen jendeak.

91. Festetako jatorduak (ALE-004/028)

Ospakizun garrantzitsuetan, herriko festetan... zer jaten zen: oilo zopa eta garbantzuak, oiloa menestran edo haragi egosia piperrekin... Postrean, arroz-esnea eta, gainean, kafea anisarekin hartu ohi zen.

92. Soltero-despedida, ezkontza eta eztei-bidaia (ALE-004/029)

Lucasen soltero-despedida Alegiako errota izan zen. Ikaztegi-tako Pilarikan ezkondu eta Benta Haundin egin zuten bazkaria. Ezkondu ondoren, bost egun egin zituzten Arantzazun. Gogoan ditu soltero-despedidako, ezkon bazkariko eta eztei-bidaiaiko prezioak.

93. Kaleberako festak (ALE-004/030)

Kaleberako festen jatorria azaltzen du.

94. Kaleberako zerra (ALE-004/031)

Kaleberako Santo Kristo ermita aurrean dagoen lantegia Lucasen familiarena da. Garai batean, aizkorak egiten zituzten lantegi horretak. Gero, Lucasen aitak zerra jarri zuen bertan.

95. Tabernak, bodegoiak eta sagardotegiak (ALE-004/032)

Garai batean Alegian zenbat taberna, bodegoi eta sagardotegi eta non zeuden azaltzen du Lucasek.

96. Taberna giroa eta emakumeak (ALE-004/033)

Garai batean, jendeak porroi ardoa hartu eta eserita kontuak esaten egoten zen tabernan, ez zen txikiteorik egiten: "gero hasi zen hori". Herriko bi tabernatan jaten ematen zuten, "baina jateko korrientea". Gose garaian, taberna horietako batera kalean harrapatutako katuak eramaten zituzten, eta han modu onean prestatzen zizkien jateko. Emakumeak ez ziren tabernara sartzen. Zigarroa erretzen ere ez zen emakumerik ikusten. Koinaka, anisa eta ardoa izaten ziren tabernako ohiko kontsumizioak.

97. Festetan, hiru-lau taberna postu (ALE-004/034)

Herriko festetan hiru-lau taberna postu jartzen ziren kalean. Edatekoa eta pintxoak zerbitzatzen zituzten. Pipar-opilak, txurroak... Dozena txurroa erreal batean saltzen zen.

98. Karamelu postuak (ALE-004/035)

Igandetan eta "jai handietan" lau-bost postu egoten ziren plazan karameluak saltzen. Karamelu saltzaileak Tolosatik joaten ziren Alegiara gurpildun karroa hartuta. Karameluak saltzeaz gain, errifak egin eta karameluak zozketatzen ziren postu horietan. Tolosan ere egoten ziren karameluak saltzen zituzten karroak.

99. Arrain saltzaileak (ALE-004/036)

Martin Pescador 'Txoria' izenez ezagutzen zen legorretar bat egunero joaten zen Alegiara arraina saltzera. Alegiako emakume bat ere arrain saltzen ibiltzen omen zen.

100. Eskola garaia (ALE-004/038)

Gerra ondorenean, ostegun arratsaldetan jai izaten zuten, baina larunbatean eskolara joan behar izaten zuten. Elur garaian, palak hartu eta bideak garbitzen aritzen ziren mutikoak. Eskolan nolako estufak zauden azaltzen du. Uda partean, basotik egurra ekartzen zenean, egurra txikituta jarri eta ganbaran jaso behar izaten zuten.

101. Auzolana (ALE-004/039)

Auzolana nola izaten zen azaltzen du. Jendea basolanak egitera (egurra moztera, basoak garbitzera...) joaten zen. Udalak garrafoi bat ardo ematen zuen lanera joaten zirentzako. Gero, lanean aritzen zirenei partzela ematen zien handik egurra, garoa... jaso zezaten etxerako.

102. Aita zerratzailea (ALE-004/040)

Lucasen aita zerratzailea zen. Kaleberako Santo Kristo ermita aurrean zuten zerratokia. Egurra erosi, bota eta moztu egiten zuten. 14-15 urte zituela hasi zen Lucas baso botatzen.

103. Pilotarako zaletasuna mutikotatik (ALE-004/042)

Mutikotatik izan du pilotarako zaletasuna. 15 urterekin irabazi zuen aurreneko kanpeonatoa. Etxeko sei anaiak aritzen ziren pilotan. Lau anaiak jokaturako pilota partida bati buruz hitz egiten du.

104. Herriko kartzela (ALE-004/043)

Udaletxe azpian kartzela txiki bat zegoen. Han sartzen zituzten mozkorrak, borrokan aritzen zirenak... Festetan guardia zibilak ibiltzen ziren herrian.

105. Frontoiak, garbitokia, mataderoa... non ziren (ALE-004/045)

Frontoiak okupatuta egoten zirenean, ezkaratzean jokatzeko zuten pilotan. Alegian frontoiak, garbitokia, mataderoa, pixatokia ("meadero")... non ziren azaltzen du.

106. Pilotak egitea (ALE-004/046)

Mutikotan, beraiek egiten zituzten pilotak. Amari ostutako hariaren bat, kanikak, bizikleta kamarak edota "kixki" esaten zioten gomak erabiltzen zituzten pilotak egiteko.

107. "Baratoan" hartutako pilota (ALE-004/047)

Alegian bazen gizon bat pilotak egin eta alokatzen zituena. "Pilota baratoan hartzea" esaten zioten gizon hari pilota hartzeari. Aukeraturako pilotaren arabera, hainbesteko bat ordaindu behar izaten zuten mutikoek.

108. "Alegiarrak, txintzarritarrak" (ALE-004/048)

Alegiari "txintzarri" zergatik esaten zaion azaltzen du Lucasek. Herrian bazen 'Ttanbor' esaten zioten gizon bat zintzarriak egiten zituena. Ezkaratzean aritzen zen zintzarriak egiten. 'Ttanbor'rek egindako "txintzarri" batzuk erakusten ditu Lucasek. Festetan, paperezko zintzarri bat jaisten dute balkoi batetik udaletxera kable baten zintzilikatuta. Festetako azken egunean, erre egiten dute zintzarri hori.

109. Inguruko herrietako ezizenak (ALE-004/049)

Altzokoei "tipulak" esaten diote. Legorretakoei, "makillarik". Oreindaingoei, "bareak". Amezketakoei, "euliak"

110. Argindarra (ALE-004/051)

Lehen, jendea goiz joaten zen ohera eta goiz jaikitzen zen hurrengo egunean. Etxean bazuten argia. Aldaban, osabarenean ez zen argirik. Alegian bi zentral ziren. Udara partean, egunez ez zen behar adina indar izaten eta gauez aritzen ziren zerratokian lanean.

111. Afizionatu mailako pilotaria (ALE-004/056)

Pilotari afizionatu moduan hasi zeneko kontuak. Debalde jokatzten zituen partidak. Txapelketa famatuenak Hernanikoa eta Añorgakoa ziren. Txapelketak nola izaten ziren azaltzen du. Hanka-hutsik jokatzeko ohitura zuen Lucasek.

112. Oinetakoak (ALE-004/057)

Etxean ez zen denentzako adina oinetako, eta anaiarekin txandaka ibiltzen zituen alpargatak. Etxean konpontzen zituzten alpartak, alanbrearekin. Mendira joateko abarkak erabiltzen zituzten.

113. Doña Francisca maistra (ALE-005/002)

Maistra zuten eskolan, Doña Francisca. Eskolaren egitura. Gero moja eskolara joan zen. Uniforme beltzez joan behar izaten zuten jantzita.

114. Alegiako festak: Tolosako banda (ALE-005/003)

Gerra baino lehen ospatutako festetara Tolosako banda etortzen zen herrira, plazan jotzera. Luisa Josefa Hijas de La Cruzeko kongregazioan zegoen sartuta. Dantzan ibiliz gero, kongregaziotik bota edo zigortu egiten zituzten, zinta gorriaz.

115. Alegia asko aldatu da (ALE-005/004)

Alegian emandako aldaketak aipatzen ditu. Herriko zenbait non bizi ziren. Soro gutxiago, etxe gehiago.

116. Eskolan piper, lanean geratzeko (ALE-005/005)

Amak soroan laguntza behar zuenean, eskolan piper egin behar izaten zuen. Umeak zaintzen gelditu ohi zen. 9 urte zituen aita hil zenean. Taloa eta esnea ohikoa izaten zuten jateko.

117. Gerra garaian ezin irinik egin (ALE-005/006)

Gerra garaian etxeko artoa eta babarrunak erabiltzen zituzten. Irina egiteko arazoak izaten zituzten erroak itxi baitzituzten.

118. Kaniketan umea besotan zuela (ALE-005/008)

Anaiarreba gazteagoak zaindu behar izaten zituen askotan, eta hauek besoan hartuta, kaniketan ibili ohi zen.

119. Karmenak galarazi (ALE-005/009)

Zenbait ospakizun egiten ziren inguruan, tartean Karmenak. Galarazi egin zituzten gerra garaian.

120. Errepublikarrek gurutzeak kendu (ALE-005/011)

Errepublika garaian eskolatik sinbologia erlijiosoa kendu zuten. Elizak katekistak formatu eta eskolatik zuzenena joan behar izaten zuten dotrina ikastera. Hamalau urteak arte joan zen eskolara. Amari askotan laguntzen zion anai-arrebak zaintzen.

121. Igandero elizara (ALE-005/013)

Igandero goizeko seietan, zazpietan eta hamarretan izaten zen meza. Askotan joan behar izan zuen seietako mezara.

122. Nafarrak herrian sartu zirenekoa (ALE-005/015)

Abuztuaren 7an sartu ziren nafarrak herrian. Kale bati egun hartako izena harri zioten. Apopilo zuten neska bat, eta morroi bat ere bai. Egun hartan janaria hartu eta etxetik alde egin zuten. Gauez etxera itzultzen ziren lotara.

123. Gerran izeba-osaben etxera (ALE-005/017)

Herria bonbardatu zutenean izeba-osaben baserrira abiatu ziren hamabost bat lagun, familiakoak eta bizilagunak. Beldurrak jota, baserria bano lehenago zegoen txabolatxo batean sartu ziren, bonben beldur.

124. Herrira nafarrak sartu, eta "bakea" nagusitu (ALE-005/019)

Nafarrak herrian sartu zirenean, jendeak hegazkinei tiro egiten ziela oroitzen du. Amak koltxoak jartzen zituen leihoetan. Behin nafarrak herrian sartuta, "bakea" egonkortu zela zioten.

125. Margarita egin behar (ALE-005/020)

Falangistek herria hartu, eta Margarita egin ziren neska asko, erreketeen aldeko neskak. Uniformez jantzita desfileak egin behar izaten zituzten.

126. Hilero falangistentzat dirua biltzen (ALE-005/022)

Margaritentzat eta erreketeeentzat dirua biltzen zen hilero-hilero. Etxez etxe joaten ziren, zerga moduan.

127. Tolosatik erreketea instrukzioa ematera (ALE-005/023)

Instrukzioa jasotzen zuten gazteek. Horretarako, Tolosatik joaten zen herrira erreketek bat. Erreketeek garaipenen bat zutenean, herrian desfilea izaten zen, eta bukaeran "Viva Franco" oihukatu behar izaten zuten. Margariten abestiak.

128. "Que en España triunfa el requete" (ALE-005/025)

Etxe guztiak arakatu zituen Guardia Zibilak, arma bila. 'Cara al sol' abestia eta egiten zituzten aldaketak.

129. Aita tratularia, ama etxeko agintari (ALE-006/003)

Amaren oroitzapen bizia du. Hamabost urte zituela hil zitzaion Luisi. Aitaren oroitzapena ere ona du. Aita tratularia zuen. Ama 'guztia' zen. Asko agintzen zuen etxean eta bere iritzia pisuzkoa zen.

130. Gerraostean jaiotakoa (ALE-006/005)

Errazionamenduaz eta kartiliez gogoratzen da. Ekonomia arazoak ere gogoan ditu, baina aitaren ogibidea zela eta (tratularia) denetarik izan zuten etxean. Alegian soldaduen presentziaz gogoratzen da.

131. Aita nazionalista (ALE-006/007)

Alegian herri eskola eta moja eskola zeuden. Luis Moja eskolara joan zen, eta politika ez zen bertan sartu. Eskola nazionallean, ordean, bai. Aita nazionalista zen, eta botoak erosten ibiltzen zen alderdiarentzat. Ama, aldiz, karlista zen.

132. Goi mailako ikasketak oso jende gutxi (ALE-006/009)

Goi mailako ikasketak jende gutxi egiten zituen herrian, medikuen eta botikarioen semeek, besteak beste. Anaia 'escuela de trabajos' delakoan aritu zen ikasten. Horregatik, seminarioetara joatea ohikoagoa zen.

133. Hamaika urterekin seminariora (ALE-006/010)

Saturrarango seminariora joan zen hamaika urterekin. Herriko apaizak latina eta oinarritzko ikasketa batzuk irakatsi zizkion sarrera-proba gaindi zezan. Hala ere, gaztelaniaz moldatzen ez zenez, euskaraz egin zioten proba. Bakarrenetakoa izan zen.

134. Saturraranez Alegiaren antzarik ez (ALE-006/011)

Aldaketa handia izan zen Luisentzat Alegiatik Saturrarango seminariora joatea. Barnealdetik kostara joan zen. Herri txiki batetik 200 mutilen artean egotera. Jende asko ezagutu zuen. Erdal jendea.

135. Juan Mari Lekuona seminarioan (ALE-006/013)

Seminario izan aurretik kartzela izan zen Saturraranez. Euskararen aldeko mugitzaile ez zuen bertan ezagutu. Juan Mari Lekuona ezagutu zuen han.

136. Kontzientzia politikoa piztu (ALE-006/014)

Urte batean Franco Alegiatik pasa behar zela eta, ume guztiak agurtzera joan zirela oititzen du. Zigorre egin zuten Luis, Franco galiziarra zela esateagatik, gaizki ikusirik baitzegoen hura.

137. 'Koreanoak' (ALE-006/015)

Galiziatik Alegiara joaten ziren galiziarrek euskaraz ikasten zuten eta herrian segituan integratzen ziren. Trenbideko langileak ziren batzuk.

138. Donostiako seminarioan euskal kulturarekin topo (ALE-006/016)

Hamahiru urterekin Saturraranez Donostiako seminariora joan zen. 500 pertsonatik gorako seminarioa zen hau. Euskararekin lehen kontaktua bertan izan zuen, Anton Garro apaizari esker, euskarazko literatura uzten baitzion irakurtzeko. Apaizen artean euskaltzaleasuna bizirik bazegoen ere, guztiz kontrako jendea ere bazen seminarioan.

139. Donostiako seminarioan euskara irakasten zen (ALE-006/017)

Seminarioan giro politikoa topatu zuen Donostian. Kezka sozialak ziren nagusi orduan, kristauen ikuspegitik beti ere. Hamabost bat urte zituela politikak bazuen bere lekua, alfabetizatze kanpainak. Euskara irakasten zen seminarioan bertan modu formalean.

140. Gaztelania ikasteko borondate handia (ALE-006/019)

Seminarioetan lagun batzuekin euskaraz egiten zuen, eta beste batzuekin ez. Luisek, ordea, gaztelania ikasteko borondate handia zuen.

141. Hiriko eta herriko jantziak oso ezberdinak (ALE-006/021)

Euskara ez zegoen lehen mailan seminarioan. Kontzientziazioa geroago etorri zen. Amezketarrak eta alegitarrak zirela euskaran ez ezik, jantzietan ere nabaritzen zen. Osaba zapataria zuen eta botak egiten zizkion.

142. Herri txikietako ikasleak batzeko ohitura (ALE-006/022)

Seminarioko ikasleen artean herri txikietakoak elkartzeko ohitura zegoen. Altzokoak, Amezketakoak, Leitzakoak eta Alegiakoak elkartzen ziren. Ondoren ikasgaietan lortutako emaitzen arabera ere elkartzen ziren.

143. Seminarioak hustu egin ziren 1966 inguruan (ALE-006/024)

66-67 urte bitartean seminarioetan aldaketa nabarmena gertatu zen. Kontu askok egin zuten eztanda garai hartan. Seminariotik atera eta Versallesera joan zen Luis. Seminarioak nolabait hustu egin ziren.

144. Parisen Filosofia ikasketak (ALE-006/025)

Filosofia oso gustuko zuen Luisek. Alemaniara joateko asmoa zuen hasiera batean, baina hizkuntza zela eta, Frantziara joatea erabaki zuen.

145. Parisen giro politiko bizia (ALE-006/026)

Hemeretzi urterekin joan zen Donostiako seminariotik Parisera. Pariseko giroa pil-pilean zen, eta bertan ezagutu zuen, besteak beste, Mikel Azurmendi. Politika mundura hurbiltzen hasi zen orduan. Parisen euskal giroan murgildu zen, euskal etxean. Hala ere, ikasketei eskaintzen zien denbora gehiena.

146. 1968ko maiatzaren eragina eta Euskal Herriko egoera (ALE-006/027)

Unibertsitatera ere iritsi zen Parisen 68an egindako greba. Kontraste handia nabaritu zuen handik aurrera Alegiara bueltatzen zenean. Era berean, Euskal Herrian giro politika ere pil-pilean zegoen orduan, Etxebarrieta eta Pardinesen hilketak.

147. Alderdi komunistako kide (ALE-006/028)

Parisen Marxismoa ezagutu zuen. Alderdi komunistak ere indar handia zuen orduan. Batak bestera eraman zuen eta alderdi komunistan sartzea erabaki zuen, 1974. urtearen bueltan.

148. Hizkuntzaren filosofiaren zale (ALE-006/030)

Filosofia ikasketak egin eta Xabier Zubiriri buruzko lan bat egin zuen. Elebitasuna eta beste hizkuntza kontuak landu zituen Parisen.

149. Lur argitaletxea ezagutu zuenekoa (ALE-006/032)

Parisetik etorri eta irakasleen elkartearekin jarri zen harremanetan. Euskarazko liburuak ekoizten hasi zen. Lan honetan ari zela Lur argitaletxeko lantaldearekin kontaktatu zuen eta haiekin hasi zen lanean.

150. Parisen egotetik militante izatera (ALE-006/034)

Parisetik etorritakoan euskalgintzan 'militante' izateko asmoa zuen, konzienteki ez bazen ere. 74. urtearen bueltan hasi zuen militantzia. Gabriel Arestiren bitartez sartu zen Lur argitaletxean.

151. Ez Dok Amairu Parisera eraman (ALE-006/036)

Seminarioan erderaz ikasi zuen. Parisen agureak zaintzen aritu zen eta frantsesa erabiltzen hasi zen. Han zebilela, euskal literatura irakurtzen hasi zen.

152. Lur eta euskara batuaren auzia (ALE-006/038)

Euskara Batuaren sorreran eta euskara idatziaren auzian, Lur argitaletxearen jokabidea garrantzizkoa zen. Egiten ziren liburu guztiak saldu ohi zituzten. Anaitasuna. Zeruko Argia.

153. Salvador Garmendiak asko irakatsi (ALE-006/039)

Salvador Garmendia zaldibitarrek asko lagundu zion euskararen kontuarekin. Zeruko Argiako zuzentzailea zen bera, eta hark irakatsi zion euskara batuan idazten.

154. Triunfon argitaratutakoak (ALE-006/042)

Madrilgo Triunfo argitaletxean ere aritu zen, Gabriel Arestiren bitartez. enbait artikulua argitaratu zizkioten.

155. Alegiako ikastola bultzatuz (ALE-006/043)

Alegiako ikastola bultzatzen aritu zen. Gipuzkoa osoko ikastoletako arduradunak biltzen ziren bileretara ere joan ohi zen Loiolara, lagun zuen Joan Mari Oartzabalekin batera.

156. Hezkuntza elebidunaren alde (ALE-006/045)

Euskal Herrian hezkuntza eredu elebiduna bultzatu nahi izan zuen eta elebitasuna aztertzen hasi zen Parisen bertan. Hamaika lekutan eman zituen hitzaldiak.

157. Edizio lanetan hasi: Kriseilu (ALE-006/047)

Edizioan lan egiteko asmorik ez zuen hasiera batean. Carrero Blanco hil zutenean, Lur finantzatzen zuen Enrique Villar atzera bota eta Luisek hartu zuen lekukoa. Arestik Kriseiluren birrargitalpen bat egiteko aholkatu, eta hala hasi zen edizioaren munduan.

158. Euskal Geografia osoa eta Hiztegi Nagusia (ALE-006/049)

Kriseilurekin hasi zen eta harpidedunak mantentzen. La Gran Enciclopedia Vasca. Euskal Geografia osoa egin zuen, Hiztegi Nagusia ondoren eta Gerra Zibilari buruzko liburu kolekzioa.

159. Idaztea: herriarekin konprometitzea (ALE-006/051)

Idaztea konpromisoa hartzeko modu bat zela ikusten zuen gaztetan. Herriarekin konprometitzea. Idazten hasi eta gustura egiten zuela ikusirik, jarraitu zuen. Zeruko Agian, Anaitasunan eta edizio eta liburugintzan aritu da ordutik. Antzerkigintza ere ukitu zuen. Gaztelaniaz ere idazten hasi zen, jende gehiagorengana iristeko asmoz.

160. Tolosa erdalduna ezagutu (ALE-006/053)

Luisek gogoan duen Tolosa erdalduna da. Ez du euskaraz hitz egiten duen tolosarrik oroitzen.

161. Alegiatar Pio Montoya (ALE-006/054)

Aitzolek Pio Montoyarekin harreman handia izan omen zuen. Alegiako apaiza zen, nazionalista. Jeltzaleen Egiz adizkaria finantziatu zuen.

162. Gerraurreko eta gerraosteko ediziogintza (ALE-006/056)

Gerraurrean edizio lan garrantzizkoak egin baziren ere, Lur argialetxean gehiago jo zuen Amerika aldeko ildoetatik. Itxaropena.

163. Jaio zen etxean bizi (ALE-007/002)

Alegiako kaleko etxe batean jaio zen Koro, eta ondoren senarrarekin bertara joan zen bizitzera. Izebarekin bizi izan zen urte askoan. Amak minbizia izan zuen.

164. Umetatik ama gaixorik ezagutu (ALE-007/003)

Koro umea zenean, gurasoek ez zuten inoiz eztabaidarik egiten. Haurtzaro tristea izan omen zuen, gaixorik ezagutu baitzuen ama beti.

165. Alegia herri alaia (ALE-007/004)

Oso herri alaia zen Alegia. Gaur egungo herritik ezberdina. Giro handia zegoen klean.

166. Manuel Perratzailea (ALE-007/005)

Uhartekoa bazen ere, Alegiako baserri abtean bizi zen Manuel Perratzailea. Tailer bat zuen herrina.

167. Alegiako jaiak (ALE-007/006)

Uztailak 26an dira jaiak herrian. Kalez betetzen zen garai batean herria. "Los Alegres" eta "Tarragona" joaten ziren musika jartzera. Zezenketak ere egon ohi ziren.

168. Soinekoa oparitu ziotenekoa (ALE-007/008)

Soineko bat oparitu zioten umetan. Festetarako jantzirik onenak jartzen zituzten.

169. Arropa garbitzea (ALE-007/009)

Arropa garbitzeko palankana handi bat erabiltzen zuten. Uretan izaten zuten arropa egun batez. Korok egiten zuen lixiba beti. Arropa jotzera, aldiz,

lavaderora joaten ziren. Amak egiten zuen xaboia etxean, gantzaz. Gantza urtuta egiten zuen.

170. Hankeki zakuak garbitu (ALE-007/010)

Lavaderoan hark zituen putzurik onenak. Emakume ona omen zen. Zakuak nola garbitzen zituzten.

171. Nahiago lana eskola baino (ALE-007/011)

Eskolarako txarra omen zen, nahiago zuen lana egin. Berrogei bat lagun ziren gela berean.

172. Eskolari beldurra (ALE-007/012)

Gela ilunera sartu zuten behin zigor moduan. Eguerdira arte ez zioten ateratzen uzten. Caton liburua erabiltzen zuten, baina Korok ez zuen batere atsegin.

173. Eskolan zigor gogorrak (ALE-007/014)

Zigorrak gogorrak izaten ziren eskolan. Erregelaz jotzen zituzten maiz.

174. Paper-fabrikan barrezka (ALE-007/016)

Fabrikan ere bihurrikeriarik ez zen falta. Alaitasuna zen han, gustura egoten ziren. Ama sukaldaria zen fabrikan. Jakiak. Astean behin bainua ere izaten zuten langileek.

175. Paper-fabrikaren egitura (ALE-007/018)

Paper-fabrika nolakoa zen eta nola antolatzen ziren.

176. Hamar duro asteko fabrikan (ALE-007/019)

Hamalau urterekin hasi zen paper-fabrikan lanean. Ama izugarri poztu zen, baina Korok ile-apaintzailea izan nahi zuen.

177. Umeak zaindu meriendaren truke (ALE-007/021)

Paper-fabrikan lanean hasi zen hamalau urterekin, baina lehenago umeak zaintzen ere aritu zen Koro.

178. Lana ezkontzeko utzi (ALE-007/023)

Lana ezkontzeko utzi zuen. Ondoren, seme-alabak handitutakoan, etxe batera joan zen lanera, Josetxo Urianerera.

179. Aberatsen etxeak eta bizimodua (ALE-007/025)

Zerbitzari, zaintzaile etab. egondako etxeen ingurukoak.

180. Nobiotan hamasei urterekin (ALE-007/028)

Hamasei-hemezortzi urterekin hasten ziren mutil kontuekin. Lanetik ateratakoan mutilarekin joateko zuen denbora oso kontrolaturik zuen familiagatik.

181. Zaldi-haragia (ALE-007/030)

Tolosan zaldien haragia erosten zuten. Merkeagoa zen hau.

182. Ezkondu aurretik haurdun gelditzea gaizki ikusirik (ALE-007/032)

Hogeita bat urterekin ezkondu zen. Ezkondu eta bederatzi hilabetera izan zuen umea. Haurdun gelditzeari erresetu handia zioten.

183. Lehenengo haurrarekin medikurik ez (ALE-007/034)

Lehenengo haurrarekin ez zen medikura joan. Bigarrenarekin, ordea, bai, alderantziz baitzetorren umea.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com